

PRESTIGE

Txapapoteak justizia ito du

Ez du inork ordainduko. Prestigeren epaiak erantzukizunetik salbuetsi du Espainiako Estata, eta Apostolos Mangouras ontziko kapitaina besterik ez du zigortu, “desobedientziagatik”. Eztabaida bizia piztu duen sententziak ez du hondamendiagatiko kalte-ordainik ere ezarri.

| RODRI SUAREZ / SERMOS GALIZA |

PRESTIGERI azken marea beltza geratzen zitzaion. Kasu honetan, epaia idazteko erabilitako tinta beltzak egin du txapapotearena; hamarkada bat iraun duen instrukzioaren eta urtebeteko epaiketaren ostean, A Coruñaako Auzitegi Probintzialak erabaki du Justizia pikutara bidaltzea. Hiru akusatuak absolbitu dituzte, tartean administrazioko kide bakarra; gertakarien unean zein orain, PPren esku zegoen administrazio hori, petroliontziaren hondoratzearen ostean agintea bere gain hartu eta hartutako erabakiekin Galizian

aurrekaririk gabeko mobilizazioa eragin zuena bere kontra. Beharbada orduan gertatutako guztia ilusio hutsa izan zen, inork ez baitu erantzukizunik hartuko bere gain. Ezer gertatuko ez balitz bezala. Berriz ere.

Prestigeren epaiak atzera mahai gainean jarri du krisi garaiotan zabaldu den ondoeza. Hasierako harridura laster bihurtu da haserre, eta epaiketa, bestela ere berandu eta ardurdun politiko gehiagoren faltagatik herren iritsi zena, noraezeko bidaia bihurtu da. Auzitegiko presidentek, Juan Luis Píak, ordu eta



XURKO LOBATO



laurden eman zuen epaia irakurtzen. Hiru salatu zeuden: Merkataritzako Ontzidiaren zuzendari nagusi ohia, José Luis López Sors; ontziko kapitaina, Apostolos Mangouras; eta makina-burua, Nikolaos Argyropoulos. Hirurak asketsi dituzte “ingurumenaren aurkako delituez”. Hondamendi honetan zerbaiten errua eduki duen bakarra, Auzitegiaren arabera, Mangouras da. Bederatzi hilabeteko espetxealdiaz zigortu dute “agintzaritzari larriki desobeditzeagatik”, ontzia mugitzeari uko egin ziola eta. Ez da kartzelan sartuko.

500 milioi euro publikoko hondamendia, zero euroko kalte-ordaina

Ez dago errudunik. Ez akusatuak, ez gertakaria kudeatu zuten gobernuak, ez petrolioaren eta –Prestigek bezala– hura garraiatzen duten ontzian atzean dagoen enpresa-egitura iluna. Erantzule zibilik ez denez izendatu, ez da kalte-ordainik izango. Haatik, momentuz zigorrik gabe geratuko dela dirudienaren zifrak ikaragarriak dira. Magistratuen esanetan, Prestigek 170.000 tona hondakin eragin zuen. Halaber, “isuriaren eragina jasan zuten itsasertzeko 2.980 kilometrok, 1.137 hondartza kutsatuak izan ziren, 450.000 metro koadro haitz txapapotez zikinduta geratu ziren, 562,3 tona fuel plataforma kontinentalaren hondora joan ziren, eta estimazioen arabera 115.000 eta 230.000 itsas hegazti hil ziren”.

Diru publikoaz den bezainbatean, Auzitegi Probintzialak dio hondamendiak 513 milioi euroko gastua eragin zuela, 368 inguru Gobernu Zentralaren aldetik eta 145 Xuntarenetik. Horiei, Frantziak xahututako 67 milioiak gehitu behar zaizkie. Baina ez da ordainik izango. Galdutako dirua. Fiskaltzak eskatu zituen milaka milioien arrastorik ez. Deus ez. Arago, aseguratzaileak berak ere fidantzarako ipini zituen 22 milioiak berreskuratu ditzake.

PP eta ingurukoak baizik ez dira poztu epaiarekin. Nunca Más plataformak Auzitegi Gorenean helegitea aurkeztu ala ez aztertuko du. Baita ere mobilizazioak deitzea, “politiko-

Ezkerreko argazkian, Prestige auziko hiru akusatuak: Merkataritzako Ontzidiaren zuzendari nagusi ohia, José Luis López Sors; ontziko kapitaina, Apostolos Mangouras; eta makina-burua, Nikolaos Argyropoulos. Eskuman, berri, Nunca Más plataformaren protesta epaitegiko ate aurrean.

tzat” jo duten eta eskatutako kalte-ordain mar-dulak ezerezean utzi dituen erabaki judizial zigorgabetzailearen aurka. Ez dago inolako erantzukizunik, kapitainak gobernuen aginduei emandako ukotik harago. Aseguru-konpainiak berak ere berreskuratu ahal izango ditu fidantza modura ipinitako 22 milioi euroak. Hondamendi naturalak eragindako milioitako galerak inork ez ditu konpentsatuko. Hori ere ez.

Auzitegiaren konklusioak doinu ezkerreko txosten luze baten amaieran iritsi dira. Tarteka etsipenez, tarteka kontraesankor, txostenak ez du egiten ez aurrera eta ez atzera; batzuetan inplikatuaren kontrako kritikak agertzen dira, handik gutxira ezerezean bukatzen dutenak, non ez Gobernuak hartutako erabakien defentsan, sarritan guztiz kontrakoa iradokitzen zuten baieztapen baten ostean.

Ontzia urruntzeari onespena

Gauzarik deigarriena izan da epaileek ontzia urruntzeko erabakiari emandako babes inplizitua, horra iristeko egin zuten gertakarien kontakizuna bihurtu samarra izan bada ere. Epaia araber, “agerikoa da, ikuspuntu logiko batetik, erabaki horren [Prestige galiziar itsasertzetik aldentzearen] ondorioz isuriengatik kaltetutako eremua bereziki zabala izan zela, eta ontzia edozein galiziar portu edo itsasadarretan gorderik egon balitz biziki murriztuko zatekeela kaltetutako inguruaren tamaina; lehen begiratuan aztertuta, logikaz ontzia gordetzea zen erabaki zuzenena, zalantzarik gabe. Baina xeheago aztertuz gero, argudio hori ahuldu egi-

Deigarria izan da epaileek ontzia urruntzeko erabakiari emandako babes: “Espero zen urperatzeak isuria geldiaraztea, fuela izozteagatik ez bazen ere, bai behintzat isuriaren kopurua eta intentsitatea mugatuz. (...) Urruntzea azalduta eta hein batean justifikatuta gelditzen da”.

Estatuaren helegitea, hipokrisia ariketa hutsa

EPAIA EZAGUTU eta bost egunera, azaroaren 18an, Alberto Núñez Feijóo Galiziako presidentek iragarri zuen Estatuko Abokatuak haren aurkako helegitea jarriko duela Espainiako Auzitegi Gorenean. Antza, Estatuko Abokatuak uste du epaiak erantzukizun zibila eta ondorioz kalte-ordainak ezarri beharko lituzkeela. Halaber, Galiziako Gobernuak buruak esan zuen aztertu egingo dutela demanda zibila aurkeztea, “norbaitek ordaindu behar ditu-eta hondamendiak eragin dituen gastuak”.

Nunca Más-en ez dira fio. Plataformako bozeramaile Xaquín Rubidok *Sermos Galiza* astekariari adierazi dionez, “Gobernuaren jarduna zuritzea eta epaiak arduradun politikorik adierazi ez izana estaltzea da helegitearen helburua”. Núñez Feijóok ordaina eskatzea jarrera kontraesankorra eta hipokrita dela salatu du Rubidok:

“Espainiako eta Galiziako gobernuen erruz eman da eman den epaia, bidea oztopoz bete baitzuten”. Zehazki, Nunca Máiseko eledunak gogorarazi du Estatuko Abokatu bera izan zela, hain zuzen, ABS sailkatze-entresa akusatuen artean egon ez zedin porrokatu zena. ABSk eman zion onespena Prestige itsasoratzeari, zazpi aldiz errebisioa egin eta gero. A Coruña-ko Auzitegiak emandako epaiak dio, orain, estatubatuar enpresa dela hondamendiaren errudunetako bat.

Nunca Máisek berak ere helegitea aurkeztuko du Espainiako Auzitegi Gorenean; adierazi dutenez, auzia Estrasburgoko Epaitegira iristeko asmoa dute. Bestalde, abenduaren 1erako manifestazioak deitu dituzte Galiziako zazpi hiri nagusietan.

Unai Brea

ten dute bestelako ñabardura batzuek, aipatutakoak bezain logikoak (...) Ia aditu guztiek bat egin dute hasiera batean ontzia urruntzeko hartutako erabakia zuzena izan zela, baina behin petroliontzaren atoa egonkortuta, eta kostaldearen talka egiteko berehalako arriskurik ez zela, logikoena, zuhurrena eta teknikoki zuzenena ontzia portu edo itsasadar batean babestea zen, haren zama beste ontzi batera eramateko, edo itsas zabaleko ur lasaietara eramatea, xede berarekin. (...) Beraz, Prestige noraezean erabili zutela eta harekin zer egin garbi ez zekitelaren dioten alegazioak ez dira sendoak, frogatu baita urruntzearen helburua izan zela isuriak gure kostaldea modu zabal eta larrian kaltetzea eragozteko, eta gainera espero zen urperatzeak isuria geldiaraztea, fuela izozteagatik ez bazen ere –eta ez zen hala gertatu [puntu honetan “arinkeriatzat” jo dute Gobernuak emandako zenbait informazio, akaso Rajoyren “haritxoek” ari dira]–, bai behintzat isuriaren kopurua eta intentsitatea mugatuz; era horretan ontziaren hondakinetatik fuela berreskuratzea ahalbidetuko zatekeen, eta halaxe gertatu zen (...) Beraz, urruntzea azalduta eta hein batean justifikatuta gelditzen da (...) Espainiar agintaritzak, gainera, aholkularitza tekniko egokia eta nahikoa zeukan, nahiz eta, mota horretako edozein aholkularitza bezala, huts egitetik libre ez egon. Orain arte ez da inoiz esan zein izango zatekeen erabaki zuzena, ezta jarraitu beharreko protokoloa ere (...) eta oraingoan ere inor ez da gai izan zer egin behar zen adierazteko, alde batera utzita zenbait iritzi partikular eta gutxi-asko tekniko. (...) Besterik gabe, larrialdi egoera batean, eta aholkularitza tekniko zorrotz eta egokiena jaso

Harrigarria da epaiak protokolo eza aipatu eta Estatua ez zigortzea huts horregatik

ostean, erabaki eztabaidagarri baina hein batean eraginkorra hartu zen, guztiz logikoa eta zeharo zuhurra”.

Harrigarria da epaiak protokolo eza aipatu eta Estatua ez zigortzea huts horregatik, edo nolabaiteko mespretxuz jardutea argudio teknikoekin Prestigeren urruntzearen aurkako arrazoiak agertu zituzten aditu ugarietz. Nunca Máisek dioenez, epaiketean frogatuta gelditu da erabakia hondoratzetik ordubetera hartu zela, eta beraz ezinezkoa dela arduradun politikoei behar bezalako aholkularitza eskatu eta jaso izana. Izan ere, ondorioetara iritsi aurretik epaiak dio artean Gobernuak ordezkaria zenak, Arsenio Fernández de Mesak, “koordinazio-funtzio lauso eta nahasia bete zuela, bai operazioak zuzenduko zituen organismo bat eratzeko orduan, bai egitura burokratiko eta pertsonen arretarako egiturak eskura jartzekoan; egitura horiek agintariei informazioa eman eta ontziari lagundu ziezaioketen, hondamenezko fuel isuri bat eragotzi zezaketen, eta ontzia berreskuratzen saia zitezkeen, haren matxurak larriak izanik ere”.

Kontraesanak daude epaian, baita hutsuneak ere. Hondoratzea eragin zuten arrazoiei dago kienez, esaterako. Magistratuen arabera, “inork ez daki zehazki zein izan zen gertatutakoaren zergatia, ez eta ere zein zen erantzun egokiena Prestigeren matxurak eragindako larrialdian, baina inork ezin du ukatu huts estrukturala, eta inork ezin izan du epaiketean demonstratu non eta zergatik gertatu zen zehazki”. Azken batean, hamaika urte “ez daki, ez du zigortzen” erantzunez amaitzeko. ■

